



FUNANBULISTAREN
BELDURRA

KARLOS GORRINDO

n a r r a t i b a

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROa (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

1. argitalpena: 2020ko martxoan

Azalaren diseinua:

Iturri

Azaleko argazkia:

Aitor Arana

Maketazioa:

Erein

© Karlos Gorrindo Etxeandia

© Hitzaurrea: Joseba Sarrionandia

© EREIN. Donostia 2020

ISBN: 978-84-9109-585-9

L. G.: D 289/2020

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus    

Inprimatzaila: Itxaropena, S. A.

Araba kalea, 45. 20800 Zarautz

T 943 835 008 F 943 130 822

e-mail: itxaropena@itxaropena.net

www.itxaropena.net

Karlos Gorrindo Etxeandia

FUNANBULISTAREN BELDURRA

HITZAURREA

Joseba Sarrionandia



erein

TESTIGANTZAREN BALIOAZ

JOSEBA SARRIONANDIA

Memoria bi eragilez osatzen da, oroimenaz eta ahanzturaz: oroimenak gordetzen du bizi izandakoa gogoan, eta ahanzturak ezabatzen du gogotik informazio hori. Memoriari zentzu positiboa ematen zaio normalean, eta ahanzturari negatiboa, baina bi eragileok aldi berean eta orekaz aritzen dira. Desoreka litzateke gertatutako dena ahaztu ezina, baina memoria galtzea ere kaltegarria litzateke. Giza oroimenaren gogoratze edo ahazte prozesu hori selektiboa da, kontzienteki edo inkontzienteki, kriterio aktibatu batzuen arabera oroitzen dira gauza batzuk eta ahazten dira beste batzuk. Oroimenak, iraganari buruzko informazioaz gainera, iraganaren esplikazioa edo interpretazioa ere ematen du.

Testigantza ez da memoria ariketa bakarrik; iraganari buruzko informazioa eta iritzia izateaz gainera, argitu behar da gauza konplexuagoa dela:

Alde batetik, testiguak ziurtatu egiten du lehen eskuko informazioa emango duela, «ni bertan egon nintzen», eta gertae-rak benetan bizi eta sufritu zituela. Testigantza hori ez da kontraera neutroa izaten, lekukoak bere iraganaren zentzua eta bere bizitzaren koherentzia azaltzen baititu gertaeren kontakizunaz gainera.

Testigantza lehen pertsonan egiten bada ere, lekukotza hori bigarren pertsona batentzat egiten da. Interlokutorea ere funtsezkoa da. Komunikazio-ekintza den aldetik, funtsezkoa da testigantzaren sinesgarritasuna. Testigantzak bilatzen du interlokutoreak egiaztat onartzea, eta sinestea, konpartitzea, berak kontatutakoa. Kexua ez da bakarrik, hiztegieta azaltzen denez, «egoera mingarri baten ahozko adierazpena». Kexua, Fiodor Dostoievskik azaltzen zuenez, norberaren minak adierazteko baino gehiago, azaltzen den mina interlokutoreekin konpartitzeko da. Alegia, testigantzak elkartasuna konbokatzeke egiten dira, karga banatzeko.

Testigantza ez da, baina, lekukoaren eta interlokutorearen artea mugatzen. Lehen eta bigarren pertsona singularren artekoa ezik, gainerako izenordeentzako ere bada testua: «Niri sinesten ez badidazu beste bati galdetu», diotso lehenak bigarrenari, eta besteak asko dira. Eta diferenteak, oroitzapen batzuk ahazten eta beste batzuk gogoratzen baitituzte. Sinesgarritasuna, kexuarena batez ere, komunikazio kontestu zabalagoko eztabaidara doa, erreka itsasora bezala. Memoria sozialak gizabanakoarenak bezala funtzionatzen du, gauza batzuk gogoratu eta beste batzuk ahaztu, eztabaida iraunkor horren ondorioz.

Memoria kolektiboaren eztabaidara sartzen den testigantza ez du izango S.T. Coleridgeren «sinesgaiztasunaren suspentsioa» babestzat. Irakurketa kritikoak izango ditu, «sinesgarritasunaren suspentsioarekin», eta egiari dagokionez epaituko da. Ez dira Aliziaren abenturak herrialde miresgarrian. Testigantzen egitasuna kontrastatzeko forma arrunta beste testigantza dira, eta gainerako informazioa. Testigantza diferenteak daudenean, eztabaidak zabaltzen dira, egiarik ahalik eta osoenaren alde.

Askotan gertatzen da besteen testigantza ukatzea, testigantza hori alde aurretik deskalifikatu edo kriminalizatu. Egia partzial

nagusi bat inposatzen da, beste egia batzuk aintzat hartu gabe, parte txarrekoak direlakoan: Espainiako espazio publikoan ez da onartzen euskaldun errebeldeen egirik. Ez da gauza berria Espainian: independentismoa beti egon da kriminalizatua, isildua, eta erabat desitxuratua haren izaera eta pentsaera. Beste plano batean, ETako gidaritzak ere disidentziak isildu eta desitxuratu egin ditu beti. Baina, gaizki jokatzeko duenaren testigantza eta arrazoibidea ukatzea, baita gaizki jokatu duenean ere, arazoa areagotzea da. Batzuen testigantzak ukatzea errealitatea osorik ikusi nahi ez izatea da. Hala gertatu da, eta hala gertatzen da orain ere, endekatzen direla eta larritzen direla arazoak. Nahi badugu iragana konprenitu ezin da Errelato bat inposatu, beste ikuspegiak entzun behar dira.

Rashomon, Ryunosuke Akutagawaren eleberria har daiteke literaturan gertaera berberak ikuspegi desberdinetatik kontatzearen adibidetzat. Gertaeren bertsiio diferenteak, egia diferenteak, eta gezurrak ere bai, gezurrik esateko asmorik gabeko uste faltsuak barru. Dena dela, kontaerek, egiazkoak direnean ere, subjektiboak dira, testuinguruaren eta interesen arabera, eta gertatutakoarekiko ikuspegi jakin bat azaltzen dute.

Rashomon izenak japonieraz «Gazteluko atea» esan nahi du. Orain mila eta berrehun urte, harresiz babestutako Kioto hiriko ate handia zen hura, Rashomon, ia 8 metro garai eta 33 metro zabalera. Baina XII. menderako ate hori oso kaltetua zegoen. Lapurrak eta eskaleak biltzen ziren hondakin lorrinduotan, hilotzak botatzen zituzten, ume jaioberriak abandonatzen zituzten bertan. Eta hiriko atearen hondamendi hori hartu zuten Ryunosuke Akutagawak eta gero Akira Kurosawak sinbolotzat. Nik esango nuke ziudaderako sarrera hori bezala daukagula guk memoria.

Memoria historikoa edo memoria kolektiboa, eta hondatzailea eta lorrindua bestea da, jakina. Irrazionala eta biolentoa bestea

da beti. Umilki arrazionala eta orekatua norbera izaten da, ironiaz seinalatzen zuenez Jorge Luis Borgesek. Umorerik gabe uste izaten du jende askok hori.

Norberaren egiak besteenekin osatzen dira; besteen ikuspegiak isilduz eta desitxuratuz ez dago gizarte osasunik. Denena da hiriko sarrera araztu beharra. Bakoitzaren memoria konpartitzea eta besteenekin kontrastatzea hiriaren sarrera garbitzea bezala da.

FUNANBULISTAREN BELDURRA

– 1 –

MADRIL

HIDE IN YOUR SHELL

| Supertramp |

Nora joan ez zekiten urrats baldar eta zalantzatien oihartzuna entzuten nuen eliza bateko sarrera zirudien pasilloan barrena. Isilik nindoan. Isiltasuna zen nagusi eraikin hartan. Erantzi gabeko beldurra generaman soinean jantzita artean ere. Komentu edo eliza baten barruan geundela ematen zuen. Eta komentuek eta elizek beldurra ematen zidaten ume lumatu gabekoa nintzenetik. Ilunak, ezin azalduzko misterioez beteak, mamuz hornituak, sufrimena eta beldurra zabaltzeko eta eragiteko eraikinak iruditzen zitzaizkidan. Zapatu oro joaten nintzen mezatara gurasoek aginduta. Zapatu oro bidaltzen ninduten gurasoek Andra Maria elizako homilia bizitzera. Zapatu oro behar nion aitortza egin aitorlekuaren barrualde ilunean zegoen abadeari. Eta aitortu egiten nizkion pentsamenduzko eta obrazko bekatuak, bekatu egitea zer zen argi eta garbi ez banuen ere. Amari gezur txikia esatea bekatu larria omen zen. Pentsamendu inpuruak izateak infernurako bidean jarriko gintuen. Eta nik asaskatu egiten nizkion den-denak abadeari, eta pisu astunik gabeko arima lebitatzen sentitzen nuen munduko bekatu guztiak barkatzen zituen ostia hartutakoan, behin elizatik kanpora. Iluntasunetik argitasunerako bidean.

Izeko moja izanak lagunduko bide zidan nire oinarrizko he-
zibide hartan. Mojetako ikastetxe karmeldarrean egin nituen he-
ziketako lehen urrats oinarrizkoak. Jainkoarekiko diziplinan hezi
ninduten; Jainkoarekiko maitasunean barik, ostera, beldurrean
gehiago. Corpus Christi egunean, neu baino handiagoa zen mos-
ketoia eskuetan hartu eta hiru ordu luzez zutunik, ezin aharrau-
sirik egin, ezin arnasa sakonik hartu, ezin puzkerrik jaurti, esta-
tua bagina legez, kieto, guardia egin behar izaten genuen eskolako
kaperan ia konortea galdu arte, era militarrean, artean sei-zazpi
urteko ume-mokoa nintzelarik. Kaperila iluna eta kandela soil eta
sotil gutxi batzuek argizatuta egoten zen. Eta kaperila lugubre har-
tan, kandelaren usain zorabiagarrien erdian, estatua zaindarien be-
giradapean, beldur intrintsekoa sentitzen ikasi nuen ume-ume-
tatik.

Kartzelak ere, kaletik ikusita, beldurra ereiteko edo emateko
eraikinak ziren, elizak bezala. Kartzela bekatu larria egindakoari jar-
tzen zitzaion zigor beldur-eragilea zen. Komentuak, elizak eta
kartzelak, hortaz, gizakiek eraikitako gotorleku beldur-eragileak
ziren, horixe zuten funtzio eta helburu bakarra. Hori zela-eta, me-
zatarak gindoazen transzendentzia berarekin egiten nuen urrats ba-
koitza, beldurrak airean, ate osteko bakoitzean zer ikusiko zain,
nora eramango zain, guri zer egingo zain, deus ez jakiteak ematen
zigun kezka eta urduritasunak barrua hartuta. Burumakur ja-
rraitzen nuen bidea, ez nuen inora begiratzeko gogorik, gure au-
rretik gidari lanak egiten zihoan funtzionarioaren urratsei salbu.
Berba egiteko gogorik gabe entzuten nuen *Txontaren* xuxurla. Eta
Patarena eta *Enrarena*. Irribarrea zuten ezpainetan hirurek, eta ha-
mar egunetako berba egin ezin izanaren osteko giltza emanda ze-
biltzala zirudien, hainbesterako afana baitzerabilten honetaz eta
hartaz berba egiten. Gatzik eta piperrik gabeko gauzez akaso.

Komisarian bizi izandakoaz ziurrenik. Haien musuan lasaitasuna irakurtzen nuen; nirea tristuraren ispilu zen.

Estura eta nahigabea sentitzen nuen bularraldean, sabelean, neure izate osoan. Epailearen aurretik igaro eta gero ere, ez zitzaizkidan aienatu kezka eta arrangura. Ezin eraman nezakeen zama aldean, eta eztarikoko korapiloa ez nuen arintzen sentitu, alboko lagunen aupada eta berba animosoak entzunagatik ere.

Urrats multzoaren oihartzuna entzuten nuen bobedan labain egiten belarrietarako bidean. Kordelik gabeko zapatilak jantzita generamatzan denok, *Mamiak* izan ezik. Mamiak txankletak zeramatzan oinetan. Loka nituen neure zapatilak eta deseroso nindoan egiten nuen urrats bakoitzeko. Komisariara sartu eta poliziaiek ziegara sartu aurretik kenarazi zizkiguten, gerrikoarekin batera. Eta ez zizkiguten atzera itzuli, poliziaen garaipenaren ezauzgarri legez gordeko bide zituzten-eta auskalo nongo zaborrontzitan.

Kuadrilla bitxi samarra osatzen genuen pasilloan barrena, burkoa, manta eta izarak besapean, trapu-biltzaileen lana betetzen egongo bagina bezala. Atzamarrak tinta beltzean zikindu osteko oparia izan zen, hatz-markak eta lotarako trepetak. Kartzelak egingdako oparia generaman besapetik zintzilik.

Ate karrankariak zeharkatu genituen bata bestearen atzetik, pasillo nagusia ematen zuenera iritsi ginen arte. Isilik egin nuen bigaia guztia, hitz egiteko gogorik ez neukan; neure barrualdea husten ez nuen jakin; nire lagunen berba-jarioak ez ninduen kutsatu, eta burumakur jarraitu nuen pasilloan barrena, funtzionario bat aurretik eta bi guardia zibil atzetik. Pasillo nagusirako atetzarra zeharkatutakoan, guardia zibilak atzean geratu ziren sartu gabe, eta erdi ilunpean zegoen kobazulotik ateratzen ari ginelako sentsazio lasaigarria izan nuen.

Lurzorua lanbasarekin garbitzen ziharduten hiru mutil gazte ikusi nituen pasilloan. Pertsona gehiago ere ikusi nituen hara eta hona, paperak eskuetan, jolasean, barreka eta korrika txikian. Kartzela barruko iluntasun deserosoak ostarteak utzi zizkigun agerian bat-batean. Kartzela ez zen lau horma biluzi soilik. Bazen bertan bizirik, bizilagunik, gutaz gaindi. Eta edozein herritako edozein kaletan nengoelako irudipena izan nuen une batez, azken atetzarra zeharkatu ostean. Ate karrankari batetik besterako iraganaldia iluna bezain isila egin zitzaidan, harik eta pasilloaren azken zatira iritsiak ginela iruditu zitzaidan arte.

Pasilloaren alboko ate bat ireki eta gizon lodikote bat ikusi nuen bulego bat zirudien ziega batetik irteten. Funtzionarioak militarrek zirelako ustea izan nuen bat-batean, guardia zibilak baitziruditen kartzela barruko zaindarien. Janzkeran, behintzat, bai. Berdea zen gizon lodikotearen jantzia, guardia zibilena bezalakoa.

Gizon lodikoteak otzan agindu zien korrika eta barreka zihaozen pertsoneri isiltzeko eta «*Esto no es un parque de juegos*» erantsi zien ia amultsuki, guraso aitak seme bihurriei egingo ziekeen samurtasunarekin. Eta bere ardatzaren inguruan jira egin eta atez bestalde desagertu zen, agertu bezala. Atearen goialdean plaka bat zegoen jarrita, inskripzio honekin: «Zerbitzuburua».

Bederatzi ginen guztira lagunak, noranzko jakin gabeen, gidari lanak egiten zizkigun funtzionarioaren atzetik. Komandokideak aurretik, eta, atzetik, nik ezagutzen ez nituen beste lau. Begiratu ere ez nien arretaz egin. Eta hartara jarrita, atzetik zetorren baten gorpuzkera eta aurpegia ezagunak egin zitzaizkidan. Sudurra hanpatua zeukan eta ezkerreko masaila erabat ubeldua. Kozkor bat zeukan bekokiaren zabaleran. Kopetilun zetorren eta burumakur, eta ezin izan nion aurpegia behar bezala ikusi, harik eta burua jaso eta begi-keinu bat egin zidan arte. Bihotzak punpa egin zidan

bularraren barruan. Pedro zen; haren ibilera harro samarra eta gorpuzkera sendoa, boxeolariaren sudurra eta esku zapalak; harakinaren esku eta atzamar potoloak. Eta ume baten irribarre inozoa. Pedrorenganantz egin nuen ez bat ez bi, eta han zer egiten zuen galdetzera nindoanean, berba egin barik, besarkada bat eman nion, trepetak behegainean lagata, deusik esan gabe, berehalakoan ohartu bainintzen galdera haren erantzuna neure baitan zegoela eta ez Pedroren ahoan.

—Mailatuta zatoz, Pedro! —Ez zitzaidan besterik esatea otu.

—Zer egingo diogu ba! —Pedrok sorbaldak uzurtuz, erdi bromatan erdi etsita—. Nik ezin aitortu ez dakidanik.

Besarkadan luzatu nintzen. Eta Pedrok harritu aurpegiarekin begiratu zidan beraren betondo ubelduetatik.

—Ondo nago, lasai —esan zidan.

Mamia, Pata, Enri, Txonta eta bostak komandokide ginen. Beste inor gehiago egon zitekeenik ez zitzaidan burutik pasatu ere egiten. Pedro haien artean ikusi nuen arte.

—Eta hiru hauek, nortzuk dira? —galdetu nion.

—Ez dakit, baina uste dut denok gatozela batera.

Aupada bana egin nien bakoitzari buruz eta ahoz. Eta erantzun bera jaso nuen.

Denoi zitzaigun nabari aurpegieran komisarian igarotako egunen higadura. Nik urrututa neukan ezkerreko masaila eta ubelduta izter barruak, poliziek egindako atximurkaden ondorioz. Pedroren aurpegiak boxeo konbate baten osteko lorratzak zituen ikusgai. Enriri ere, higadura ez ezik, ezpain hanpatu eta gorrituan odol ondo lehortu gabearen arrastoa ikusten zitzaion artean ere, eta adierazkorrago egiten zitzaion komisariatik igaro izanaren zantzu salatarioa. Nik ez nuen artean Enriri hitz egin; egia esatera, lauzpabost berba arin eta galdetzaileak gurutzatu nituen taldekide

guztiek. Baina Enri nirekin haserreturik zegoela ematen zuen komisarian izandako txarto-ulertu bategatik. Ziegatik atera ninduten poliziek, eta lepoaldera eskuburdinak jarri ostean, eskailera kiribilean gora eramane ninduten erdi korrika erdi bultzaka. Lehendik ere egin nuen bide bera galdeketak egitera deituta. Bulegora sartu aurreko pasillo estuan Enri ikusi nuen hormari begira eta eskuak atzean, eskuburdinez lotuta. Neu ere jarrera berean jarri ninduen poliziak, hormari begira. Enri galdeketatik irten berria zela pentsatu nuen. Inkomunikatuta geunden komisarian sartu gintuztenetik eta ezin lagunekin barbarik egin. Enrik begiratu egin zidan aurpegia jiratuta eta beste hainbeste egin nuen nik. Eta ez nekiela zergatik, irribarrea atera zitzaidan Enriren begi ondoko ubelunea eta ezpain ondoko odol-arrastoa ikustean. Ez nekien zergatik baina barregarri iritzi nion Enriren irudiari. Pailazo baten aurpegi tristeza zuela iruditu zitzaidan, egoeraren dramatikotasunak bestelakorik adierazi arren. Eta urduritasunak edota atzera berriz galdeketa egingo zidatelako angustiak eragindako erreakzio txatxua izanagatik ere, Enrik haserrearen begiez galdetu zidan ahapetik: «Zeri egiten diozu barre?».

«*Silencio*», entzun nuen gibelaldean, eta burua hormaren kontra zapatu zidan poliziak. Horma hotzaren usain neutroa barneratu zitzaidan sudur-mintzetara. Baina laster nabaritu nuen sudurretik behera odol-hariaren epela, eta irribarrearen keinu nahi gabea erabat ezabatu zitzaidan horma hotzaren aurka aurpegia zapatuta sentitzean.

Patio edo plaza biribila zirudien gune batera iritsi ginen. Erdigunean kiosko itxura zeukan eraikin karratu bat ikusi genuen. Nire lagunak eta ni erdiguneko eraikinaren ate aurrean geratu ginen funtzionarioaren agindua entzundakoan: «*Esperen aquí*». Hiruzpalau eskailera igo behar ziren atera iristeko. Eta funtzionarioak

atea ireki zuenean, guardia berdedun gehiago ikusi nituen barrualdean. Lau jesarrita, mahai baten aurrean eta telebista txiki batzuei begira; zutik, kristaletatik kanpora so, beste bi.

«*Buenos días*», entzun nuen gibelaldetik; jiratu egin nintzen eta lehen pasilloan barreneko bulegotik irteten ikusi nuen gizon lodikote bera agertu zitzaidan atzetik. Bularraren ezker aldean identifikazio txapa bat zeraman josita alkandorara: Zerbitziburua. Bere pisurako nekosoa zirudien zalutasunarekin igo zituen eskailerak funtzionario potoloak. Kioskora sartu eta barruko funtzionario guztiak zutik jarri ziren, agindu bat entzun izan balute bezala. Nirekin eta gainerako lagunekin etorritako funtzionarioak agur egin zion era militarrean, eskua eskumako lokira eramanda. Kartzela militar batean nengoen ustea gailendu zitzaidan. Eta uste horrek ez zidan artean ere sentitzen nuen eztarriko korapiloa askatzen uzten.

Eskuetan zeraman paper bat luzatu zion funtzionario potoloari. «*A la tercera*», irakurri nion ezpainetan gizon mardulari.

«Aupa Gernika, aupa napar txiki», entzun nuen halako batez. Ez nuen asmatu nondik zetorren ahotsa, eta batera eta bestera aritu nintzen begira ahots igorlearen aurpegia nonbaiten ikusiko nuelakoan. Ezizenez deitua izanak herrikidea zelako ziurtasuna eman zidan eta ezin nuen ezkutatu bihotz-zolan eragin zidan bat-bateko hunkidura. «Aupa Gernika» entzun nuen berriro, eta ahotsa zetorren atetzarraren ingururantz egin nuen, atez bestalde deika zerbilkidan aurpegia ikusi nahian.

Bihotza alaitu zidan urruneko ahots ezezaguna entzun izanak, eta ahotsari aurpegia jarri nahi izan nion. Trepetak jasotzeko eta atzetik jarraitzeko agindu zigun lehen ere gidari lanetan ibilitako funtzionario berak. Nik berehalakoan jaso nituen neureak eta funtzionarioaren atze-atzean jarri nintzen, helmugara inor baino

lehenago iristearren. Atetzar baten albo batean zegoen beste txikiago batetik sarrarazi gintuzten galeriara. Hirugarrenera.

Sartu eta aurrez aurre lagun-talde bat ikusi nuen harrera egiten. Ez nuen inor ezagutu, baina ETako kideak ziren zalantzarik ez zegoen.

—Ongi etorritik ezin eman —esan zigun gorpuzkera sendo gihartsua zuen gazte bibotedunak—. Jokin naiz, zer moduz? Gogorra izan da?

Hizkeragatik bizkaitarra ez zela jakin nuen. Gipuzkoarra edo nafarra, oso ezohikoa egin baitzitzaidan haren mintzoaren doinu eta ahoskera.

—Zatozte nirekin, zuen txaboloak erakutsiko dizkizuet —Patari bizkarrean txapaka egitearekin batera.

Ez zitzaidan erraza egin Jokinen mintzamoldea ulertzea, baina haren atzetik joan ginen galeriaren ezkerreko albotik zeuden eskaileretan gora. Erdi ilunpetan zegoen galeria, ez zen eguzkiaren argi-izpirik inondik ere sartzen, eta giro ilun eta ospela iritzi nion galeria misterioitsuari.

—Gure txaboloak, preso politikoenak alegia, hirugarren solairuan daude —esan zion Txontari Jokinekin batera gidari zeterren mutil txaparrak—. Beste guztiak arruntenak dira, preso sozialenak.

Begira eta begira ibili arren, ez nuen ezagunik inor ikusi. Erdi ilunpetan ez ezik, erdi hutsik ere bazegoen galeria, eta bospasei gizon gazte zebiltzan galeriaren luzeran barrena paseoan hara eta hona, helmugarik gabeko bidea egiten. Edo bestela esanda, helmuga horma grisa zutela ikusita.

—Polentzi naiz —aurkeztu zuen bere burua mutil betaurreko-dun bizardunak—. Hauxe izango da zure txaboloa. Enekorekin izango zara —esan zidan irribarrea ahoan Polentzik.

Komandokideak batera jarriko gintuztelako ustea izan nuen, eta lo-ziega pertsona ezezagun batekin partekatuko nuela jakitean, deseroso eta nahigabetuta sentitu nintzen. Ez nuen deus esan, eta trepetak sartu nituen komisariako ziega bezain tetricoa iruditu zitzaidan lo-ziegan. Ziegak bi kamaina zituen, bata bestearen gainean jarrita. Behekoan koltxoi soil bat zegoen, goma-aparrezkoa, nahiko lohi eta kirasduna, hurreratu nintzenean usaindu ahal izan nuen moduan. Gainean jarri nituen izarak, manta eta burkoa. Ziegakidearen goiko kamaina eginda zegoen, txukun eta egoki. Norbait nire bila etorriko zelakoan, lo-ziegaren barruan itxarotea erabaki nuen, eta kamainan jesarri nintzen zain. Kamainaren burualdean egurrezko mahai bat eta aulki bat ikusi nituen, eta bonbilla bat zintzilik kable batetik. Oso ziega soil, ziztrin eta herdoildua iruditu zitzaidan. Kamainatik altxatu eta ziegatik irten nintzen; pasillo barandadunaren gainean pausatu nituen esku biak eta itxaroten geratu nintzen.

Barandatik behera begira jarri nintzen. Sekulako altuera ikusi nuen goitik beherakoa, eta bertigo moduko sentsazioa izan nuen. Atzerantz egin nuen era instintiboan. Ez nuen hotsik aditzen, dena zegoen isiltasunean, eta egoera horrek are eta estuago jarri zidan eztarriko korapiloa. Galeriaren bakardadeak komisariako inkomunikazioak eragindako angustia sentiarazi zidan bat-batean, eta negar egiteko gogoari eusten saiatu nintzen galeria erdi-ilun eta tristean.

Isiltasuna hautsi zuen hots karrankari bat aditu nuen. Bozgorailua izan zitekeen urruneko tramankulu bat erabiliz mintzo zen ahots letoizkoa. «*Atención tercera galería*», esan zuen ahots ulergaitzak. Arreta jarri nuen ahots lakarrak zerrendatzen zituen izen-abizenetan. Euskal abizenak ziren gehienak: Jose Antonio Bailara Azurmendi, Jose Maria Sagardoa Betule, Juan Carlos

Yema Casagrande... Ahots arrotzaren arrosarioa amaitu orduko entzun nituen neure izen-abizenak eta zereginik gabe eta nora joanik ez nekiela geratu nintzen barandan esku biak pausatuta. Aurreko txaboletako ate burdinazkoak hasi ziren irekitzen, eta batetik Enri, Pata eta Txonta ikusi nituen ateratzen; Mamia eta Polentzi izeneko beste batetik; Pedro eta taldekoak ere ba omen ziren hirukotea beste batetik, harik eta nik kartzelako tripetara sartzen ikusi nituen gizabanako guztiak atzera batuta ikusi nituen arte. Polentzik atzetik jarraitzeko adierazi zigun guztioi besoa atzetik aurrerantz eraginda «Bokeren txabolora joan behar dugu» azaldu zigun, esaldiaren erdiaren zentzua ulertu ez banion ere.

—Gose ere izango zarete, ezta? —esan zuen Polentzirekin batera zihoan *Zekor* ezizeneko mutil muxugorri lepo zabalak—. Komisarian apenas jaten den; izango dugu sukaldean hamaiketako gozoren bat ahoratzeko beste —zehaztu zigun eskaileretan behera gindoazela.

Funtzionarioen bulegoan bakoitza zein txabolotan geunden jakin izan behar genuen eta, handik irtendakoan, *Zekorrek* hitzemandako hamaiketako egitera abiatu ginen patioan omen zegoen lokal batera. Triangeluaren bertizetik zabaltzen hasten zen patio us-tez erraldoia ikusi genuen begien aurrean. Eta jende piloa hara eta hona, helmugarik gabeko norabidean. Giza marean galdu ginen lagunak, lonja moduko batera iritsi ginen arte. Patioan jira eta bira zebilen jende multzoari begira geratu nintzen une batez, eta neure buruari galdetu nion ea zein zentzu zuen atzera eta aurrera ibiltzeak, ibilbide mugatuan, inora iritsiko ez baziren.

Lokala txoko baten eran zegoen antolatuta. Mahai eta banku luzeak, perpendikular jarrita. Sei-zazpi ilaratako mahaiek osatzen zuten lokala, eta barrualdean, hondoko hormari itsatsita, parrillak erabiltzen zituzten jakiak prestatzeko, argindarrari entxufatuta.

Arrautza pareta eta txistorra mutur bana prestatu zizkiguten aitaren batean, eta goserik ez izanagatik ere, ni jakiak irensten ahalagindu nintzen, artean ere eztarriko korapiloak uzten zidan neurrian. Platereko azken hondarrak batzen ari ginelarik, jende andana ikusi genuen lokalera sartzen, eta zer egin ez genekielarik, mahai aurreko bankuan jesarrita jarraitzea erabaki genuen. Eneko izeneko bat hurreratu eta batzarra zegoela adierazi zigun. Kartzelakide batzuk abokatuarekin izan zirela eta zerbaiten berri zekartela. Berrehun bat lagun bilduko ginen jantokian eta hogeita bost bat urte izango zituen mutil gazte baten ahotsa gailendu zen berbaro amaiezinarenean gaineratik. Ile gorria zuen, sudur kakoduna eta izotza bezalako begi urdin gardenak. Serio hasi zuen mintzaldia, inori begiratu barik, baina jangelako guztiak begipean zituelarik aulki batera igota. Ahotsean urduritasun arin bat nabaritu nion hasierako berbetan, baina diskurtsoan aurrera egin ahala, baretu egin zitzaion dardara, eta irmo mintzatzen jarraitu zuen:

—Ezin gara bakoitza bere aldetik ibili. Etsaiaren aurrean denok gara kolektibo berekoak eta jarrera, portaera eta diskurtso bera erabili beharrean gaude. Entzutegi Nazionaleko epaileak gure etsaiak dira eta ezin diegu zirrikiturik eskueran laga, kolektiboaren aurka erabili ez dezaten. Hortaz, ez Entzutegia ez epaileak ezin ditugu onartu. Ezin dugu onartu epaile arrotzek gure jarduerak juzga ditzaten. Eta inork juzgatu izatekotan, juzga gaitzala herriak.

Isilunea nagusitu zen mutilak diskurtsoaren zati bati amaiera emandakoan. Ez zen inor ausartu deus esatera, mundu guztiak jakin arren denok egin behar geniola uko epaituak izateari, horrek berez zekartzan ondorio guztiekin.

Jende multzoaren artean ikusi ez nuen gizon batek besoa altxatu eta galdera egin zuen denon aurrean:

—Eta zer gertatzen da ETAko militante ez garenokin?